

"ASSOCIACIÓ DE MESTRES I PROFESSORS DE RELIGIÓ DE CATALUNYA"
elkarteak 2020ko urtarrilaren 25ean izandako bileran hurrengo adierazpen hau
aurkeztu du:

ADIERAZPENA

Gure iraskasle-kidegoaren kezkak ikusita, plantillak eta eginkizunak egonkortzeko beharizana kontuan hartuz, behin betiko destinoa duten gainerako irakasleekin parekatzeko asmoz, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian eta Europako Batasunaren arauetan eta jurisprudentzian hala ezarrita baitago, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren eta Langileen Estatutuaren aginduak betez; erlijio-irakasleok, enplegatu publikoak garenez, lan-egonkortasunerako eta finkapenerako eskubidea dugulakoan gaude, hezkuntza-politiketan gertatzen diren etengabeko aldaketen menpean egon behar izan gabe. Horretarako, gure plaza Administrazio publikoan bermatu behar da **pertsonal laboral finkoaren** izaerarekin, horrela baitago jasota gure ordenamendu juridikoan, zeren pertsonal laboralak administrazio publikoan sartzeko dituen hiru bideetako batetik (merezimenduen lehiaketa) sartu baikara.

HORREGATIK GUZTIAGATIK ESKATZEN DUGU:

- Eskudun Administrazioak pertsonal laboral finkoaren izaera guri aitortzea, zeren gure irakaskuntza-plazak hautaketa-prozesu baten bidez (merezimendu lehiaketa) lortu ditugu; berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren printzipioekin bat. Plazak finkatzea antolamendu-egonkortasunerako tresna juridiko bat da. Finkapen-prozesu horren lotura juridikoa bi alderdiren artekoa da: enplegatu publikoa eta administrazioa. Egitura-plaza bat nekez lotu dakiok behin-behineko egoera bati. Plaza horrek finkotasuna eta egonkortasuna behar ditu berez.
- Erlijio-espezialitatea gainerako espezialitate didaktikoek dituzten baldintza berberak onartzea, besteak beste, lan-egonkortasuna. Gure irakasgaia baita baldintza berdinak ez dituen arlo didaktiko bakarra.
- Lanaldiak parekatzea, gainerako hezkuntza-espezialitateekin, irakasle-plantilletan.
- Erlijio-irakasgaia denentzat izatea. Izan ere, erlijio guztiei leku eman behar zaie, gure geletako oraingo aniztasuna kontuan hartuz, hezkuntza inklusibo eta laikotasun positibo baten alde apustu eginez, herritar guztiei berdintasuna bermatzearen, irizpide demokratikoen ikuspuntutik.
- Gure irakasgaia unean uneko hezkuntza-politiken gorabeheren menpe ez egotea.

Alde horretatik eskatzen diogu Kataluniako Generalitateari erlijio-maisu eta irakasle mugagabeak (LOEren hirugarren xedapen gehigarria edo horren babesean izandako merezimendu-lehiaketak betetzearen eraginez) pertsonal laboral finkotzat hartzea ondorio guztietarako.

ADIERAZPEN HAU 2020KO URTARRILAREN 25EKO OHIKO BATZAR OROKORREAN ONETSI DA.

AMRC-K AUKERA EMATEN DIE SINDIKATU ETA ELKARTE GUZTIEI ADIERAZPEN HONETAN JASOTAKO PUNTUEI ATXIKITZEKO.